Euskal Herriko Ahotsak

ahotsak.com

Ane Pedruzo Redondo

Gasteiz, Araba (1985)



Aurkibidea

Biografia



Zintak

GAS-006

- **Proiektua**: Gasteizko Euskararen Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Etxeberria, Idoia
- **Data**: 2015-06-16
- **Iraupena**: 62 min
- **Euskarria**: Bideo digitala
- **Kodifikatzailea**: Odria, Haizea

Pasarteak

1. Euskararekiko maitasuna amari zor dio

- **Erref**: GAS-006/002
- **Iraupena**: 0:02:40. **Hasi**: 00:02:00. **Bukatu**: 00:04:40
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskalduntzea eta alfabetatzea
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:
Bere familian beti egon da euskararen aldeko jarrera, baina gazteleraz egin izan dute gehienbat. Ama Ane jaio ondoren hasi zen euskara ikasten. Anek euskara eskolan ikasi bazuen ere, uste du euskararekiko maitasuna amak transmititu ziola.

2. Euskara, bizitza filosofia bat

- **Erref**: GAS-006/003
- **Iraupena**: 0:04:32. **Hasi**: 00:04:40. **Bukatu**: 00:09:12
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararekiko sentimendua
- Euskara » Euskalduntzea eta alfabetatzea
- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:
Gaur egun bere bizitza euskararen inguruan dago eraikia. Bizitza filosofia bat da, bere ustez. Garai batean nagusiki gazteleraz bizi zen eta oso inkoherentea sentitzen zen. Orain harro dago aldaketa egin izanaz. Hizkuntza ohiturak aldatu daitezkeela konturatu zen eta hori mugarri bat izan zen. Zenbat eta gehiago euskaraz egin, inguruko jendea ere animatzen dela uste du.

3. Euskara vs gaztelera

- **Erref**: GAS-006/004
- **Iraupena**: 0:01:32. **Hasi**: 00:09:12. **Bukatu**: 00:10:44
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararekiko sentimendua

- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:
Espresio batzuk gazteleraz erabiltzen ditu. Baina horrek ez du asko kezkatzen, azken batean, bere jardunaren beste %90a euskaraz delako. Euskaraz tresnak falta zaizkigulako batzuetan gaztelerara jotzea normala da, gure errealitate soziolinguistikoa kontuan izanda.

4. Harreman berriak euskaraz egiten saiatzen da

- **Erref**: GAS-006/006
- **Iraupena**: 0:01:22. **Hasi**: 00:11:07. **Bukatu**: 00:12:29
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararekiko sentimendua
- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:
Euskaraz hitz eginez hobeto sentitzen da, sinesten duen bideari jarraitzen dabilela sentitzen duelako. Baina gazteleraz egin behar badu ere ez da gaizki sentitzen; azken batean hizkuntzak komunikazio tresna bat dira. Harreman berriak euskaraz egiten saiatzen da.

5. Bere euskararen erabilera zabalduz

- **Erref**: GAS-006/008
- **Iraupena**: 0:01:30. **Hasi**: 00:14:15. **Bukatu**: 00:15:45
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskalduntzea eta alfabetatzea
- Euskara » Euskararen egoera
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:
Euskarak beti izan du presentzia bere familian: osaba frankismo garaian hasi zen euskara ikasten; aiton-amonek euskarazko abestiak kantatzen zituzten. Eskolan ere dena euskaraz egiten zuten. Baina hortik kanpora, gazteleraz egiten zuen. Arlo batzuetara mugatua zeukan euskara. Pixkanaka zabaltzen joan da eremu gehiagotara.

6. Gasteiz, gero eta euskaldunagoa

- **Erref**: GAS-006/009
- **Iraupena**: 0:04:54. **Hasi**: 00:15:45. **Bukatu**: 00:20:39
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera
- Euskara » Euskararekiko sentimendua

Laburpena:
Gasteizen euskaraz gero eta gehiago egiten dela nabari du. Kezka bat dagoela sumatzen du, adibidez, gurasoen artean. Bilakaera handia izan da. Proiektu

berriak sortzen ari dira eta sarea zabaltzen doa. Euskararen kontrako jarrerak ere txikitzen doaz.

7. Euskararen transmisioa, behetik gora

- **Erref**: GAS-006/010
- **Iraupena**: 0:01:38. **Hasi**: 00:20:39. **Bukatu**: 00:22:17
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararekiko sentimendua
- Euskara » Euskalduntzea eta alfabetatzea
- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:
Heldu eta guraso askok, gazte edo seme-alabei esker ikasten dute euskara.

8. Euskarak espazio berriak irabazi behar ditu

- **Erref**: GAS-006/011
- **Iraupena**: 0:03:46. **Hasi**: 00:22:17. **Bukatu**: 00:26:03
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskalduntzea eta alfabetatzea
- Euskara » Euskararen egoera
- Aisia » Kultura

Laburpena:
Euskarak espazio berriak irabazi behar ditu, batez ere aisialdian. Mintzalaguna egitasmoa Gasteizen indartsua da. Gogo eta behar bat ikusten da. Alea aldizkaria. Oihaneder Euskararen Etxea.

9. Euskara sustatzeko, emozioetan dago gakoa

- **Erref**: GAS-006/013
- **Iraupena**: 0:03:11. **Hasi**: 00:27:18. **Bukatu**: 00:30:29
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararekiko sentimendua
- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:
Eskolan euskaraz baina patiora irten eta gazteleraz egiten dute askotan haurrek. Aneri ere gertatzen zitzaion baino beretzat euskaraz egitea harrotasun bat zen. Bere ustez emozioetan dago gakoa: jendeak euskara berea dela sentitu behar du. Eta horretarako egitasmoak sustatu behar dira.

10. Euskararen balio erantsiak

- **Erref**: GAS-006/015
- **Iraupena**: 0:01:28. **Hasi**: 00:31:22. **Bukatu**: 00:32:50
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararekiko sentimendua

Laburpena:
Talde folkloriko bat daukate eta triki-poteoan ateratzen direnean, inbidia puntu bat nabari du jendearengan. Hor dago gakoa, bere ustez: euskarak giro hori, momentu horiek eman diezazkiekeela erakustea.

11. Gasteizen euskaraz bizi al daiteke?

- **Erref**: GAS-006/016
- **Iraupena**: 0:02:19. **Hasi**: 00:32:50. **Bukatu**: 00:35:09
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararekiko sentimendua
- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:
Zure aldetik ahalegina egin behar duzu Gasteizen euskaraz bizitzeko, ez da erraza. Saltokietan saiatzen da lehen hitza euskaraz egiten. Jarrera positiboagoa nabari du jendearengan.

12. Euskararekiko aurreiritziak eta erantzun txarrak

- **Erref**: GAS-006/017
- **Iraupena**: 0:04:36. **Hasi**: 00:35:09. **Bukatu**: 00:39:45
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararekiko sentimendua
- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:
Aurreiritziei buruzko anekdota. Erantzun txarrak jaso izan ditu, tabernaren batean, adibidez. Horien aurrean bere iritziz izan beharko genukeen jarrera. Etorkinekin harremana.

13. Gasteiztarra eta euskalduna

- **Erref**: GAS-006/019
- **Iraupena**: 0:03:29. **Hasi**: 00:40:53. **Bukatu**: 00:44:22
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararekiko sentimendua
- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:
Jendea harritu izan da gasteiztarra izan eta euskaraz dakiela jakitean. Hasieran harrotasuna sentitzen zuen baina denborarekin amorru puntu batean bilakatu zen. Gaur egun uste du gero eta jende gehiagok ulertzen duela Gasteiz ere euskalduna dela.

14. Txikitasunetik, handi sentitzea

- **Erref**: GAS-006/020
- **Iraupena**: 0:02:32. **Hasi**: 00:44:22. **Bukatu**: 00:46:54
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararekiko sentimendua

Laburpena:
Batzuetan oso txiki sentitzen da, mugatua. Euskalkiaren inbidia ere sentitu izan du. Baina bakoitzak bere oinarritik egin behar du bidea.

15. Euskarazko hedabideak Gasteizen

- **Erref**: GAS-006/023
- **Iraupena**: 0:02:54. **Hasi**: 00:51:12. **Bukatu**: 00:54:06
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Irakurtzea
- Euskara » Euskararen egoera
- Kultura » Aisia » Hedabideak » Irratia

Laburpena:
Nahiko berriak dira euskarazko tokiko komunikabideak Gasteizen: 'Alea' eta GEU aldizkariak; 'Hirinet' webgunea; 'Hala bedi' irratia. Pixkanaka garatzen ari dira.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-11-23

CC-by-sa | **Ahotsak.eus**
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com